



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2019KO OTSAILAREN 22AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

**Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Arkaitz Fraile Quijera
Jon Mikel Iglesias Otegui**

Ibarran 2019ko otsailaren 22an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak ohiko bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkatea izan zen eta idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Kontuhartzailea: Lierni Muñoa Salaverria

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.- AURREKO TOKIKO GOBERNU BATZORDEAREN AKTAREN ONARPENA

1.1 2019KO URTARRILAREN 25EKO TOKIKO GOBERNU BATZORDEAREN AKTAREN ONARPENA

2019ko urtarrilaren 25ean eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2019ko urtarrilaren 25ean eginiko Gobernu Batzarraren akta

BIGARRENA:



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2.- 2019KO OTSAILAREN 8AN OSPATUTAKO HIRIGINTZA BATZORDEAREN
INGURUKO ERABAKIAK
2.2 UNEBIDE ENPRESAREKIN SINATURIKO OBRA KONTRATUAREN ALDAKETA
EZ SUSTANTZIALA

2018ko azaroaren 6an Belabieta kiroldegiko terrazako itokinak konpontzeko kontratua sinatu zen Unebide enpresarekin.

Obrak 2018ko azaroaren 15ean hasi ziren eta oraindik ez dira amaitu.

2019ko urtarrilaren 22an udal arkitektoak sinaturiko txostenean Unebide enpresarekin sinaturiko obra kontratuaren aldaketa ez sustantziala justifikatu eta proposatzen du.

Proposatzen diren aldaketak obra iraupenaren luzatzea eta zenbait obra lanen aldaketa suposatzen dute.

2019ko otsailaren 6ean Ibarra Udaleko Idazkariak sinaturiko txostenean aipaturiko justifikazioak egokitzat hartzen ditu eta 9/2017 legeak adierazten dituen baldintzak betetzen direla ere adierazten du.

Kontuharzailearen otsailaren 12ko txostena kontuan izanik kontratu aldaketaren aldeko txostena baldintzatua geratzen da 2019 aurrekontuan 7533,42 euroko partida onartzera, kreditu aldaketa bidez. Berau, 2019/67 Alkate dekretuz onartu da.

2019ko otsailaren 8an ospaturiko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan harturik, hona Tokiko Gobernu Batzordea, aho-batez, harturiko

ERABAKIA

LEHENA: Onartzea Unebide enpresarekin azaroaren 4ean sinaturiko kontratuaren aldaketa ez sustantziala obraren epea luzatzeko eta obra lanetan zenbait aldaketa egin ahal izateko.

BIGARRENA: aldaketaren iragarkia jartzea Tokiko Gobernu Batzordeak onartu eta 5 eguneko epean kontratatzailearen profilean



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Aldaketa perfektionatzeko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 203-207 artikulua bitartean ezarritakoaren arabera, kontratistari audientzia eman beharko zaio alegazioak egin ditzan. Alegazio hauek, aurkezturiko dokumentuekin eta kontratuaren aldaketaren akordioarekin batera, kontratazio profileen argitaratuko dira gobernu batzordeak erabakia hartu eta 5 eguneko epean gehienez.

Onarpena perfektionatu ondoren, auzi zegoen kontratua aldatu eta bi aldeek berriz sinatuko dute.

HIRUGARRENA: Onartzea 2018-3278 erregistro zenbakiarekin kontratistak aurkezturiko 7533,42 euro prezio igoera aldaketak egin ahal izateko. Prezioak kontratuaren hasierako kostuaren % 15a ez du gainditzen.

LAUGARRENA: Baldintzatea obraren martxa ondoren zehazturiko moduan:

Bigarren fasea otsailaren 4etik aurrera hasiko da eta 4 egun jarraian, astelehenean larunbatera, izotzik gabe edo euri urik gabe iragartzen den unetik. Kontratistak inpermeabilizazio lana, estankotasun proba eta hormigoi inpresoa botatzeko lanak jarraian egingo ditu eta horretarako beharrezkoak diren baliabideak prest izango ditu.

Lan horiek irauten duten bitartean eraikinaren sarrera nagusia ezin izango da erabili, baina beste lan guztiak egiteko sarrera nagusia libre utzi beharko da.

Ez da onartuko kontratistaren erruz obra etetea edo beharrezkoak diren medioak ez izateagatik obra luzatzea. Lanak egiteko epea zenbatzeko eguraldi ona egiten duen egunak eta Gantt diagraman jasotakoa kontuan izango da.

BOSGARRENA: Jakinaraztea kontratistari izendaturiko enkargatuak, berriz ere arkitektoaren edo segurtasun koordinadorearen deirik ez badu erantzuten oso arau hauste larria izendatuko dela eta udalak 1000tik 3000 eurotarainoko zehapenak jarriko ahal ditu.

SEIGARRENA: eskatzea kontratistari hamabost urteko epean kalte-ordainengatik erantzukizuna lehenengo faseko inpermeabilizazioaren azpiko lokaletan estankotasun frogarik egin ez delako.. Epea obraren harrera egiten denetik kontatzen hasiko da.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

ZAZPIGARRENA: Erabaki hau jakinaraztea Unebide enpresari eta obrako segurtasun koordinadoreari.

3.- GALDERA ETA ESKAERAK

Ez dago galdera eta eskaerarik.

|

|

Eta eguneko gai-zerrendan aztertu beharreko beste gairik ez zegoenez, batzordeburu jaunak egintza amaitutzat eman zuen goizeko ordubatak eta hogei direnean, eta nik, idazkari naizen honetan, horixe egiaztatu nahi dut

Ibarrako Udaleko idazkaria

Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2019ko otsailaren 28an